

GERNIKAKO TXIKIKETA

[Inazio Eizmendi "Basarri"](#)

(Errezil, Gipuzkoa, 1913 – Zarautz, Gipuzkoa, 1999)

Euskara batuan

1. Mila eta bederatziehun eta / hogeita hamazazpia, / euskotarrentzat urte beltz, ilun, / triste eta negargarria, / hauts bihurturik utzi zutena / Gernika zoragarria, / euskal erlikia maitatuenak / gordetzen zituen herria.
2. Bitxirik goxo eta kuttunena / zu zinen euskaldunentzat, / lur mardul, ona eman baitzenuen / arbola santuarentzat. / Pentsatu hutsez begiak ibai / ditugu negarrentzat, / horra zer sari modu zeukaten / etsai ankerrek zuretzat.
3. Apirileko hilarekin zen, / hogeita seigarrenean, / hain juxtu ere feria eguna, / astelehen arratsaldean; / kale-baserri, milaka anaia, / gizatasun ederrean, / plaza inguruan aurkitzen ziren / lehengo ohitura zaharrean.
4. Kanpandorreko ezkilak hasi / ziren dinbili-danbala, / goiko piztien motor burruna / entzuna zen berehala; / emakume eta ume gaixoak / kurrixka zeriela, / heriotzari ihesi nahirik / nora jo ez zekitela.
5. Bertsoz nork esan bonba txar haien / indar gaiztozko danbarra? / Ez zuten behintzat osorik utzi / bizileku bat bakarra. / Eta dena xehatu zuten garaian / alde guztietatik sugarra, / errugabeko gixajoentzat / horra hor azken ederra!
6. Bizi zirenek ihesten zuten / sutegei zakar hartatik, / baina hegazkinak tiro eta tiro / etengabe goietatik; / kristau gorputzak alde batetik, / beso-buruak bestetik, / odol gorrizko itsaso hartan / ez zen ikusten besterik.
7. Ehunka izan ziren etxe jausien / zakarpetan geldituak, / nork daki zenbat kale gorrian / zeharo erdibituak? / Infernu honetan uzten gaituzte / laguntza gabe galduak, / o, euskaldunen min, oinazerik, / ez du sentitzen munduak.
8. Milatik gora igaro ziren / arnasa utzitakoak, / ez jakin zenbat bizi guztiko / eri gelditutakoak. / Horietatik gehientsuenak / andrezko eta umetxoak, / guda txar horretan erru galantik / izango zuten gaixoek!
9. Puska dituzte gure herri polit, / apain eta maitekorrak, / puska dituzte baserri txuri, / gure kabi on, xamurrak. / Eta zirtzildurik kaletan utzi, / o, euskaldunen hezurak, / Alemaniatik gu txikitzen / etorritako maltzurrek.
10. Basati gaizto, odolzaleak / atzerrietatik ekartzen, / tokirik zoragarrienari / txikitu eta su ematen; / hauts egindako gure Gernika / antsika dago esaten, / Franco eta bere laguntzaileek / zein bihotz ona daukaten.

11. Espainia handi bat egin asmotan / gerra txar horretan hasiak; / euskal herririk ederren haiek / zeuen aginduz hautsiak; / denborak joanda gero damutzen / zareten bekatariak, / zer grinatako jaunak zareten / badaki mundu guztiak.

12. Ikusi zuten neurrigabeko / bekatua zeukatela, / ikusi zuten hainbat kristau on / odolustu zituztela; / ikusi zuten mundua kontra / jaikiko zitzaiela, / eta orduan zabaldu zuten / gorriek erre zutela.

13. Bere lekuan erne eta zintzo / hortxe dago euskalduna, / berak baitaki zein ederra den / barrengo garbitasuna. / Itxaron, jaunak, itxaron lasai, / iritsiko da eguna, / Goiko Jaunaren aurrean kontu / eman beharko duguna.

14. Ez da, ez, alferrikako izan / hor isuri den odola, / pentsa oraindik emaitza ederrak / ematekotan dagoela. / Euskal gogoa armaz eta indarrez / ezin hil liteke inola, / Gernika erre ziguten baina / zutunik dago arbola.

EIZMENDI MANTEROLA, Inazio "Basarri" (1992). [Nere bordatxotik](#). Donostia: Auspoa Liburutegia. (73-74).